# Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria

# Boletín Oficial del País Vasco

ITUNDUTAKO POSTA - SARIA: 08/74 FRANQUEO CONCERTADO: 08/74

Arduralaritza: Wellington-go Dukearen kalea, 2. Administración: Duque de Wellington, 2.
Legeztadura: VI - 286 - 78 :-: GASTEIZ Depósito Legal: VI - 286 - 78 :-: VITORIA-GASTEIZ

## *LABURPENA - SUMARIO*

## Euskadi Osorako Erabakiak
## Disposiciones Generales del País Vasco

Orrialdea

LEHENDAKARITZA

Bezeroaren Araudia, azaroaren 18ko 10/1981 LEGEA. 2285

Página

PRESIDENCIA

LEY 10/1981, de 18 de Noviembre del Estatuto del Consumidor. 2285

## Iragarpenak
## Anuncios

EKONOMIA ETA HERRIOGASUN-SAILA

Ondoren aipatzen biden ikastegiak eraikitzeko lanak emateko ERREMATE-LEHIAKETA. 2294

DEPARTAMENTO DE ECONOMIA Y HACIENDA

CONCURSO-SUBASTA para la adjudicación de las obras de construcción de los centros escolares que se citan. 2294

## Euskadi Osorako Erabakiak
## Disposiciones Generales del País Vasco

**LEHENDAKARITZA**

**1022**

Bezeroaren Araudia, azaroaren 18ko 10/1981 LEGEA.

Euskadiko Herri osoari, Legebiltzarrak Azaroaren 18ko 10/1981 "BEZEROAREN ARAUDIA" Legea, onartu duela jakinarazten zaio. Beraz, hori bete eta betearazi dezatela agintzen diet Euskadiko herritar guztiei.

Gasteiz, 1981garreneko azaroaren 18an.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

**PRESIDENCIA**

**1022**

LEY 10/1981, de 18 de Noviembre del Estatuto del Consumidor.

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento ha aprobado la Ley 10/1981, de 18 de Noviembre, sobre "ESTATUTO DEL CONSUMIDOR". Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos de Euskadi, particulares y autoridades que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de Noviembre de 1981.

El Presidente del Gobierno Vasco,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

## ZIOEN ADIERAZPENA

Euskal Herriko Autonomia-Elkarteak, Estatutoko 10garren Atalaren 27 eta 28garren zatien arauera, bakarreango agintea du Bezeroaren eta Baliatzailearen Aldezpenaren alorrean, prezioekiko guztizko politikaren, ogasunak Erresuma osoko lurraldeetan nahi bezala ibiltzearen eta lehiakortasunaren aldezko legeen kaltetan gabe.

Hoiek oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzak bezeroen eta Erabiltzaileen arazoak jarri ditu azterkizun eta, hori, babesik ezezko eta gehiegizko lege-ugaritasunezko modutan agiri den egoera bat aurrean duela.

Gauza nabarmena denez, bezeroak ez du, askotan, merkataritza-jokabideekiko dagokion babesik. Bestalde, araupideak barreiatu eta Herri eta merkataritza-Legeetatik hasi eta arduralaritza eta auzibide-arauak ahaztu gabe zigorlegeraino iristen diren alor bereiziak hartzen dituzte.

Halaber, bezeroaren zer denaz ere irizpide zabalago bat izatea beharrezkoa da, artez nahiz zeharka eragiten dioten gizarte-bizitzaren zenbait alderdi doazkion norbanako denez ikusiz.

Hoietatik abiatuta, zerak ematen du bidezkoen: Gaurko Arduralaritza batek hitzarmenarekiko irizpideek denbora igaroalan izan duten bilakakuntza ikus dezaneko oinarrizko arauak finkatzea.

Askatasuna izan dugu, gure legeetan, oinarrizko irizpide hitzarmenen alorrean. Baina gauza bat dago, ukatu ezinekoa: Norbanakoaren eta merkataritza-erakundeen arteko ezberdintasuna, hoiek saltzen dituztenak, sarri asko, amor-emate hutseraino iristen den moduz erosten bait-dira, inolako hitzarmen-askatasunik gabe.

Horretzaz gainera, hor ditugu zabalkunde-ekintza indartsuak; hoiek direla eta herritar arruntarentzat zaila gertatzen da erosgaia aukeratzeko berez oinarrizko diren alderdiak ezagutzea.

Bezeroen legezko egoeragatikako eta eman behar zaion babesagatikako ardura hori azken hogei urteotan zenbait erresumetan agertu eta arazo horri alderdi berezietatik heltzen dioten legeetan nabarmentzen da.

Osasunaren, gorputz-segurtasunaren eta ekonomiazuduen babeserako eskubidea, argipidetarakoarekin eta bezeroa hezitzekoarekin batera, hainbat lege-erapidetzetan sartuta daude Erkaketa-Legelaritzari bagagozkio.

Bestalde, bezeroei aitortzen ari zaie erakundeak antolatzeko eta doazkien arazoetan entzun dakieneko eskubidea.

Gai hoiei gagozkiela, Europako Kontseiluaren Bezeroaren Babeserako Agiria, eta Europako Ekonomia-Elkartearen Bezeroen Babes eta Argipideketa-Politika batentzat Aintzin-Egitaraua azpimarragarriak dira.

Hoien guztien nazioarteko eraginaren ondorioz, irizpide hoiek Konstituzio berrienetan erabiltzen dira eta bai, hain zuzen, Espainiakoan ere, bere 51garren Atalean herri-agintaritzak, bezeroen eta baliatzaileen segurantza, osasuna eta bidezko zuduak modu eraginkorrez babestuz haien eskubideak bermatuko dituela dionean.

## EXPOSICION DE MOTIVOS

La Comunidad Autónoma del País Vasco, conforme al artículo 10, apartados 27 y 28, del Estatuto, tiene competencia exclusiva en materia de defensa del consumidor y del usuario, sin perjuicio de la política general de precios, la libre circulación de bienes en el territorio del Estado y la legislación sobre defensa de la competencia.

En base a cuanto antecede, el Gobierno vasco se ha planteado la problemática del consumidor y el usuario y lo hace ante una realidad que se presenta en forma de situaciones de indefensión y de proliferación legislativa.

Evidentemente, el consumidor no tiene, en muchos casos, la protección que le corresponde ante prácticas comerciales organizadas. Por otra parte, las normativas se diseminan y abarcan campos diferenciados que van desde el Derecho Civil y Mercantil hasta el Penal, sin olvidar las normas administrativas y procesales.

Asimismo, se hace preciso establecer una noción más amplia del concepto de consumidor como persona a la que conciernen los diferentes aspectos de la vida social que pueden afectarle directa o indirectamente.

Partiendo de cuanto antecede, parece correcto que se establezcan aquellas bases conforme a las cuales una Administración moderna debe contemplar la evolución que ha tenido en el tiempo la filosofía contractual.

El principio fundamental de la libertad ha sido el sustento de nuestra legislación en materia de contratos. Pero es innegable la desigualdad manifiesta existente entre el individuo aislado y organizaciones comerciales cuyos productos se adquieren, de forma que la libre contratación queda en ocasiones mixtificada de tal forma que en la práctica supone un contrato de adhesión.

A esto habrá que añadir los efectos de las grandes campañas publicitarias frente a las cuales el ciudadano medio tiene grandes dificultades para discernir factores que, por otra parte, son fundamentales para la elección del producto.

Esta preocupación por la situación legal de los consumidores y su necesaria protección ha tenido su reflejo en la legislación que en estos últimos veinte años está surgiendo en distintos países y en la que desde distintas vertientes se acomete esta problemática.

El derecho a la protección de la salud y seguridad física y a la de los intereses económicos, junto con el derecho a la información y a la educación del consumidor, ya forman parte de diferentes legislaciones en el Derecho comparado.

Por otra parte, se viene reconociendo el derecho de los consumidores a organizarse y a ser oídos en las cuestiones que les afecten.

Con relación a estos temas, es de señalar la Carta de Protección del Consumidor, del Consejo de Europa, y el Programa Preliminar de la Comunidad Económica Europea para una Política de Protección y de Información de los Consumidores.

El alcance de cuanto antecede da lugar a que dichos conceptos se recojan en las más modernas Constituciones y concretamente en la española, donde el artículo 51 establece que los poderes públicos garantizarán los derechos de los consumidores y usuarios, protegiendo, mediante procedimientos eficaces, la seguridad, la salud y los legítimos intereses económicos de los mismos.

Halaber, Konstituzio horrek berak, Legeak ezarri ditzan modutan bezero eta baliatzaileen argipideketa eta heziketa suztatu, hoien erakundeei indar eman eta doazkieken arazoetan entzun egingo zaiela zehazten du.

Bukatzeko, barne-merkataritza eta salgaientzako baimenen jaurpidea giro horretan araupetuko direla uzten da erasota.

Azpimarragarri da, halaber, Espainiako Konstituzioaren 53garren Atalaren 3garren zatiak diona, zera alegia: 51garren Atala berebaitan duen hirugarren Atalburuan onartutako irizpideekiko aitorpena, begirunea eta babesa izango direla legegintzaren, epailaritza-bideen eta herri-agintaritzaren ihardunaren oinarri.

Horregatik, eta zioen adierazpena hasterakoan esanda bezala, Euskal Herriko Autonomia-Elkarteak Abenduaren 18ko 3/1979 Oinarrizko Legearen indarrez alor horretan bakarreango agintea duenez gero, Bezeroaren Araudi-Lege hau gauzatzen da, prezioen guztizko politikabideei buruzko Konstituzioko oinarri-irizpideekiko, merkatu-ekonomiaren baitango enpresa-askatasunarekiko, ogasunak Erresuma osoan batetik bestera nahi bezala eraman ahal izatearekik eta lehiakortasunaren aldeko legeekiko begirunea errepikatuz, eta horren kaltetan gabe.

## I IDAZPURUA.–GUZTIZKO IRIZPIDEAK

*Lehenengo Atala.*–Oinarri-Lege honen bidez, bezeroaren eta baliatzailearen zuduen aldezpenerako araupideak ematen dira, herritarraren eskubide denez, Autonomia-Estatutoko 10garren Ataleko 27 eta 28garren zatiek diotenez, Estatutoaren behin-behingo Erabakietako zazpigarrenak dionez gai honetan Erresumaren legebideei eutsi beharraren kaltetan gabe.

*Bigarren Atala.*–Horren eretzean, zera ulertuko da bezero eta baliatzaileak aipatzen direnean: Berak bakarrik, familiak edo talde batek erabiltzeko ogasunak, eskuarteak edo zerbitzuek erosi, erabili edo gozatu, eta gizarte-bizitzaren alderdi bereziak bezero denez artez nahiz zeharka doazkioken ezein norbanako edo lege-nortasundun.

*Hirugarren Atala.*–Honako hauek ditu bere eskubide bezero eta baliatzeileak:

a) Bere osasunaren eta segurantzaren babeserako eskubidea.

b) Bere ekonomia-zuduen babeserako eskubidea.

c) Argipidetarako eta hezkuntzarako eskubidea.

d) Bere erakundeak sortarazi eta, horretarako jarri daitezen araupideen ariora doazkien arazoetan hoiei entzun dakieneko eskubidea.

e) Legezko babeserako eta kalteen ordaina eskatzeko eskubideak.

## II IDAZPURUA.–BEZEROAREN ESKUBIDEAK

### I Atalburua.–Bere osasunaren eta segurantzaren babeserako eskubidea

*Laugarren Atala.*–Bezero edo baliatzaileentzako ogasunak eta zerbitzuak, aurrez ohartemandaitezkeenetan osasunarentzat edo gorputz-segurantzarentzat inolako arriskurik ekarri ez dezaten moduan eman edo egin behar dira. Bestela, eskeinita egotetik modu eginkorrez kendu egin behar dira.

Asimismo, dicho texto constitucional precisa que se promoverá la información y la educación de los consumidores y usuarios, se fomentarán sus organizaciones y se oirá a éstas en las cuestiones que puedan afectar a aquéllos, en los términos que la Ley establezca.

Por último, se hace constar que en dicho marco se regulará el comercio interior y el régimen de autorización de productos comerciales.

Es, asimismo, de hacer constar que en el párrafo 3.º del artículo 53, de la Constitución española, se establece que el reconocimiento, el respeto y la protección de los principios reconocidos en el capítulo III, en el que está incluido el artículo 51, informará la legislación positiva, la práctica judicial y la actuación de los poderes públicos.

Por ello, y tal como se ha indicado al comienzo de esta exposición de motivos, al disponer la Comunidad Autónoma del País Vasco de competencia exclusiva en esta materia, en virtud de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, se formula la presente Ley-Estatuto del Consumidor, reiterando la salvedad y el respeto a los principios constitucionales referentes a la política general de precios, la libertad de empresa en el marco de la economía de mercado, la libre circulación de bienes en el territorio del Estado y la legislación sobre defensa de la competencia.

## TITULO I.–PRINCIPIOS GENERALES

*Artículo primero.*–Por la presente Ley básica se establecen las normas para la defensa de los intereses del consumidor y del usuario como un derecho ciudadano, en los términos del artículo 10, apartados 27 y 28, del Estatuto de Autonomía, sin perjuicio del mantenimiento de la legislación estatal en la materia, que será aplicable según resulta de la disposición transitoria séptima del referido Estatuto.

*Artículo segundo.*–A estos efectos se entiende por consumidor y usuario a toda persona física o jurídica que adquiera, utilice o disfrute de bienes, medios o servicios, para uso personal, familiar o colectivo y a la que conciernen los diferentes aspectos de la vida social que pueden afectarle directa o indirectamente como tal consumidor.

*Artículo tercero.*–Son derechos del consumidor y usuario:

a) El derecho a la protección de su salud y su seguridad.

b) El derecho a la protección de sus intereses económicos.

c) El derecho a la información y educación.

d) El derecho a crear sus propias organizaciones y a que éstas sean oídas en los temas que les afecten, de acuerdo con las normas que se establezcan al respecto.

e) El derecho a la protección jurídica y a la reparación de daños.

## TITULO II.–DERECHOS DEL CONSUMIDOR

### Capítulo I.–Derecho a la protección de su salud y seguridad

*Artículo cuarto.*–Los bienes y servicios destinados a los consumidores o usuarios deben ser suministrados o prestados de forma que, en condiciones previsibles, no presenten peligro alguno para la salud o la seguridad física. En caso contrario deberán ser retirados del mercado por procedimientos eficaces.

Ogasun eta zerbitzuez arauz baliatzean hoien heuren izakerari edo baliatzailearengan gerta daitezkela uste denari begira legoken ezein arrisku, bezero edo baliatzaileei modu egokiz, argi eta nabarmenki jakinarazi beharko zaie.

*Bosgarren Atala.*—Janariak egiteko edo maneatzeko legez erabili daitezkeen gozagarri, osagarri eta gehigarriak zeintzuk diren esanaz zerrenda zehatzak argiteratuko dira.

Gai bat zerrenda hoietan sararazteko egin beharrezko bideak horretarako araupidetan emango dira.

Halaber, ontziekiko eta lotura-azalekiko zaingoa eratuko da, agizko egoeran janariak kutsatu ez daitezeneko bideak eginaz.

Orain arte agindutako hoien guztien kaltetan gabe, gizabanakoen osasunari eta segurantzari begira, jendea behar bezala jakitun jartzeko eta berehala eskuhartu ahal izateko, arriskutsuak direlako jan-edatekoetan, hoiek egiten edo zerbitzuak egiten ezin erabili daitezkeen gai, ekoizpide eta gintzateknikabideen zerrendak ere argitaratu ahal izango dira.

*Seigarren Atala.*—Salgai dauden janari eta edariak indarrean dauden lege-bideak bete beharko dituzte, janaritzaaraupideei atxiki, eta argipideketa, zabalkunde, iragarketa, idazkun, txartel, ontzi, zigilu eta epeari buruz aginduta daudenak bilduz. Halaber, kutsagetutako giroan egin, osasunketaarauz landu eta hoiek kutsatzea galerazi dedila segurtatzeko behar daitezen neurri guztiak hartuko dira.

Botika-gaiek, ontziei, hoien segurantzazko itxiturari, osagarriekiko argipideei, sendakuntza-gaitasunei, baliatzemoduari eta epeei buruz legez aginduta dauden guztiak beteko dituzte.

Ehungintza-gaien zertazkoa eta errekortasuna ere bere txarteletan adierazi beharko dira.

Berebaitan gai pozoitsuak, eskaldagarriak, erregarriak edo gorbizgarriak daramatzaten salgai guztiak, dagozkien segurantzako ontzitan joan beharko dute eta, atxikita, hoiek erabiltzeak dakarren arriskuaz oharrarazteko ikurrak eraman beharko dituzte.

Orohar, bezeroen segurantzarentzat edo osasunarentzat arriskugarri gerta daitekeen ezein salgai ezingo da horretzazko arauak hertsiki beteaz baino egin, eta bezeroek edo baliatzaileek behar bezala erabili dezateneko argipideak emanaz baizik zabaldu.

*Zazpigarren Atala.*—Gizakien gorputz-segurantzari eragin diezaieketen Ekoizpen landuen behar bezalako zaingorako beharrezko izan daitezen neurriak hartuko dira, honen eretzean konponketa eta zaingo-zerbitzuei dagokien arreta hartuz.

*Zortzigarren Atala.*—Lehenbiziko mailako beharretarakotzat jotako gai, ogasun eta zerbitzuen errolde bat egingo da, asko erabiltzen direlako eta biztanleentzat behar-beharrezko direlako zaingo hestuagoa behar dutenak hoietan sartuz.

*Bederatzigarren Atala.*—Bezero eta baliatzaileek, bere etxebizitzaren osasunketa eta osasunbideen aldetatikako zernolakoak ezagutzeko eskubidea izango dute, eta bai bertako gai eta antolapideen ontasun-maila eta ezarri direneko modua ere, enerjia aurreratzekoak eta berotasun-jabaltzebideak barne.

Cualquier riesgo que pudiere derivarse de la normal utilización de bienes y servicios, en consideración a su naturaleza y a presuntas circunstancias personales del destinatario, deberá ser puesto en conocimiento de los consumidores o usuarios por los medios apropiados y en forma clara y visible.

*Artículo quinto.*—Se publicarán listas positivas en las que se precisarán aquellos ingredientes, componentes y aditivos cuya utilización queda legalmente autorizada para la fabricación o preparación de productos alimenticios.

El procedimiento a seguir para la inclusión de un artículo en las referidads listas positivas será objeto de la correspondiente normativa.

Asimismo se establecerá el debido control respecto de envases y envoltorios evitando, en condiciones normales, la contaminación de los productos.

Sin perjuicio de todo lo anteriormente establecido y en atención a la salud y seguridad de las personas y para la debida información general y rapidez de actuación, podrán publicarse listas de productos, procesos y técnicas de fabricación que por su peligrosidad no pueden formar parte de la composición de artículos de consumo, utilizarse en la producción o en la prestación de servicios.

*Artículo sexto.*—Los productos alimenticios y bebidas puestos a la venta deberán cumplir las condiciones higiénicosanitarias exigidas por la normativa vigente, sujetarse a las normas alimentarias y reunir los requisitos obligados respecto de información, propaganda, publicidad, rotulación, etiquetado, envasado, precintado y caducidad. Asimismo se adoptarán las medidas precisas para asegurar que se elaboren asépticamente, se manipulen en forma higiénica y se evite su contaminación.

Los productos farmacéuticos se sujetarán a cuanto está legislado respecto de envases y cierre de seguridad de los mismos e información de la composición, condiciones terapéuticas, contraindicaciones, modo de empleo y caducidad.

La composición, grado de inflamabilidad y normas de uso de los productos textiles deberán recogerse en sus etiquetas.

Todos los artículos que en su composición lleven sustancias tóxicas, cáusticas, corrosivas o abrasivas deberán ir envasados con las debidas garantías y llevar adosados los oportunos signos que adviertan el riesgo en su manipulación.

Con carácter general, cualquier producto que pueda suponer riesgo para la seguridad y salud de los consumidores, sólo podrá fabricarse con sujeción a lo reglamentado al respecto y distribuirse ofreciendo la debida información que garantice su correcta utilización por parte del consumidor o usuario.

*Artículo séptimo.*—Se adoptarán las medidas precisas para que los productos manufacturados susceptibles de afectar a la seguridad física de las personas sean debidamente controlados, prestando a este respecto la debida atención a los servicios de reparación y mantenimiento.

*Artículo octavo.*—Se confeccionará una relación de productos, bienes y servicios considerados de primera necesidad, dándose este carácter a aquellos que por ser de consumo masivo o por ser esenciales para la población necesiten de un control más intenso.

*Artículo noveno.*—Los usuarios y consumidores tendrán derecho a conocer las características higiénico-sanitarias y constructivas de su vivienda, así como la calidad y sistemas de puesta en obra de sus materiales e instalaciones, inclusive las de ahorro energético y especialmente las de aislamiento térmico.

*Hamargarren Atala.*—Herri-agintariek jendearentzako garraio eta tegien segurantzaren, ontasun-mailaren eta osasungarritasunaren arta izango dute.

*Hamaikagarren Atala.*—Euskal Arduralaritzak, edo bezeroen osasuna eta segurantza zaindu dedineko eskubidea berma dezan araupidetza erabili eta artatu dezaten herri-erakundeek, egin dituztenekiko argipide-txosten zehatz bat argitaratuko dute urteoro, egindako arakaketen ondorioak emanaz eta hartutako erabakien oinarriak eraskin-gisa aurkeztuz.

**II Atalburua.—Bezeroen ekonomia-zuduen aldezpenerako eskubidea**

*Hamabigarren Atala.*—Bezero edo baliatzaileari, ogasun edo ekoizki akasdunek edo behar bezala gabe egindako zerbitzuek bere ekonomia-zuduei dakarzkioketen kalteen aurkako babeserako eskubide aitortzen zaio.

*Hamairugarren Atala.*—Ogasun-erosleei eta zerbitzubaliatzaileei salmentango gehiegikeriazko jokabide batzuekiko babesa emango zaie, eta bereziki:

a) Aldebatekoikeriaz egindako hitzarmenetan.

b) Hitzarmenetatik utzi ezinezko eskubideak kentzeari buruzkoak.

c) Lukurreriazko mailegupideak.

d) Eskatu gabeko merkatalgaiak ordaintzeko eskatzea.

e) Aukera-askatasuna mugatzen duten salmenta-moduak.

f) Bezeroentzako kaltegarri edo bederen gehiegikeriazko gerta daitezen hitzarmen-atalak.

Eusko Jaurlaritzak, horretarako, indarrean dauden legebideak benetan bete, eta esandako jokabide hoiek bezelakoak bazterstu eta zigortu ditzan bat lortzen saiatuko da bere ekintzan.

*Hamalaugarren Atala.*—Ogasun eta zerbitzuen ontasunmaila, zehaztasuna eta prezioen gardentasuna babesteko beharrezko neurri guztiak hartuko dira; hoietarako guztietarako, honako hauek lortzeko xedezko bideak egingo dira:

a) Ogasuna edo zerbitzua erosterakoan edo erabiltzerakoan ongi dagoenaren erabateko bermea, eta gero haietaz baliatzerako eskeintzen diran bermapideen adierazpen bat.

b) Pisu-neurritango zehaztasuna.

c) Eroste-prezioaren zehaztasuna, berehala ordainduta nahiz gerokotan izan.

d) Eskeintzen denaren eta horri bere tasunak edo bereizpideak ematen dizkioten osagarrien arteko elkar-egokitasuna.

e) Ogasun iraunkorretan, saldu ondorengo zerbitzuetarako araupideen zehaztapen garbia.

*Hamaboskarren Atala.*—Bezeroari, erositako ogasun iraunkorrentzako zaingo-zerbitzu egoki baten eskubidea dagokio. Horretarako, eta indarrean dauden legepideen barruan, honako helburu hauek lortzeko neurri egokiak hartuko dira:

a) Ogasun hoietzaz zuzen eta behar bezala baliatzea murriztu-nahizko jokabideen zaingoa.

b) Bezeroek, Eraberritu edo egiteari utzitako sailetakoentzako epe batek diraueno konpontze-zatian izango direneko bermea izateko.

*Artículo décimo.*—Los poderes públicos velarán por la seguridad, calidad y salubridad de los transportes y locales de uso público.

*Artículo decimoprimero.*—La Administración vasca, u organismos públicos encargados de la aplicación y control de la reglamentación que garantice el derecho a la protección de la salud y seguridad de los consumidores, publicará anualmente una memoria detallada de sus actividades, indicando los resultados de los controles efectuados y presentando como anexos los fundamentos de su decisión.

**Capítulo II.—Derecho a la protección de los intereses económicos de los consumidores**

*Artículo decimosegundo.*—Se reconoce el derecho del consumidor o usuario a ser protegido contra los daños causados a sus intereses económicos por bienes o productos defectuosos o por servicios prestados de modo insatisfactorio.

*Artículo decimotercero.*—Los compradores de bienes o los usuarios de servicios estarán protegidos contra las prácticas abusivas de venta, y en particular respecto de:

a) Los contratos tipo establecidos de modo unilateral.

b) Las que se refieran a la exclusión en los contratos de derechos irrenunciables.

c) Las condiciones abusivas de crédito.

d) La demanda de pago de mercancías no solicitadas.

e) Los métodos de venta que limiten la libertad de elección.

f) Las cláusulas contractuales que resulten lesivas o simplemente abusivas para el consumidor.

Con este fin, el Gobierno vasco orientará su actividad a la efectiva aplicación de la normativa vigente y a la consecución de aquélla que evite y sancione prácticas como las referidas.

*Artículo decimocuarto.*—Se adoptarán todas las medidas precisas para la defensa de la calidad de los bienes y servicios, la corrección en el peso y medida y la transparencia de los precios. A todos estos fines se desarrollarán las medidas conducentes al logro de:

a) Unas plenas garantías del estado del bien o servicio al ser adquirido o utilizado y una concreción de las que se ofrecen en relación con su posterior uso.

b) Una exactitud en el peso y medida.

c) La precisión en el precio de adquisición, al contado o aplazado.

d) Una correcta relación entre el producto ofrecido y los componentes que lo definan o particularicen.

e) Una clara exposición de las condiciones que han de regir los servicios postventa en los bienes duraderos.

*Artículo decimoquinto.*—Al consumidor le corresponde el derecho a disponer de un servicio postventa satisfactorio para los bienes duraderos que hubiese adquirido. Con este fin, se adoptarán las medidas oportunas dentro de la normativa vigente, dirigidas al logro de los siguientes objetivos:

a) El control de las prácticas tendentes a disminuir la correcta y normal utilización de estos bienes.

b) Garantizar al usuario la provisión de recambios durante un plazo determinado, para modelos que hubiesen sido objeto de innovación o se dejaran de fabricar.

c) Banakako zertasuna duten zati batzuk bat bakarra bailitzan berriztatze-kosko gisa aurkezteko joerazko jokabideen zaingoa.

d) Erosi ondorengo zaingo-lan guztietarako aurrez gostea zehazki ematea.

e) Zerbitzuak egitean esandako epeak betetzea.

f) Bermealdiaren barruan ogasunak geldi egoteagatik bezeroari eman beharreko ordainak.

g) Hala badagokio, ordain-agiriak behar bezala sailka-sailka eginda eman beharra betetzea.

*Hamaseigarren Atala.*—Euskal Herriko Autonomia-Elkarteari eta horren Arduralaritza-Sailei atxikitako herri-zerbitzuetan bezero eta baliatzaileek eskuhartzeko arauak emango dira.

*Hamazazpigarren Atala.*—Eusko Jaurlaritzak, bezeroaren zuduei eta ekonomia osoarenei begira, bezeroen banakako eta bateango beharrei erantzuteko, eskaintzen diren salgaien ontasun-mailaren eta prezioaren arteko heina hobetzeko, ekoizkien egoerarekiko ebaskeria galerazteko, eta salerosketa-bideak hobetzeko, beretzat hartuko du, Merkataritza eta Turismo-Sailaren bitartez, bezeroari argi emateko xedezko neurri eta ekintzapide guztiak osatzea eta egiteratzea.

**III Atalburua.—Argipide eta hezkuntza-eskubidea**

*— Lehenengo Saila. Argipide-eskubidea*

*Hemezortzigarren Atala.*—Ogasunen erosleari, edo zerbitzuen baliatzaileari, argipide egokiak izatea zor zaio, honako hauetarako:

a) Eskaintzen zaizkion ogasun eta zerbitzuen funtsezko zernolakoa eta alekako edo pisu edo neurri-bateko bakoitzeko prezioa zehatz ezagutzeko.

b) Batean eskaintzen zaizkion ogasun eta zerbitzuen artean arrazoizko aukera bat egin ahal izateko.

c) Ogasun eta zerbitzuez segurantzaz eta modu asebetegarriz baliatzeko.

d) Hartutako ekoizpen edo zerbitzuak agian ekarritako kaltearen ordaina eskatzeko.

*Hemeretzigarren Atala.*—Dirubidetza, beherapen, hobari edo nolanahiko berarizko abantailak eskaini daitezenean, salmenta-prezioa eta noiz-nolako gehitzeen edo beherapenen zenbatekoa bereziki zehaztuko dira.

